



Baby eta Penny neska koskorrek gurasoak galdu dituzte istripu batean. Aurrerantzean osaba Wilhelmen landetxean biziko dira haren familiarekin. Hasierako une gogortuak pasa ondoren ahizpa biak ohitu egingo dira osabaren zorrotasunarekin, Marie eta Annie lehengusuen bitxikeriekin eta izeba Katchenekin. Landa bizitzako alde zoriontsua gozatuko dute bete-betean.

Italia gudan dago eta herrialdearen zati hura oraindik Mussolini eta nazien menpe. Umeak *Duce*aren eskolan diktadorea maitatzera ere iritsiko dira. Eta apaizaren irakaspen erlijioso itogarriaren eraginez ia agerpen mistikoak direnak hasi dira irudikatzen. Baina neskak, ia jakitun izan gabe, guztia gaindituz libre eta zoriontsu biziko dira lehengusuekin eta herriko nekazarien seme-alabekin. Baina bada zerbait mehatxugarria airean.

Izan ere, gerrak bere bidea egingo du eta piano hots atseginak kanoiaren burrunbak bihurtuko dira. Eta umeen alaitasunak samin mingotsari utzi beharko dio bidea. Isuriko den odola ez da soilik borroeroek etxeko atarian akabatutako animaliena izango. Bukaera hain da bat-batekoa eta bortxazkoa non eta, nahiz eta aurretik zerbait susmatu, bihotza txingurrituko baitigu.

Kontakizuna oso kapitulu motzetan banatuta dago. Penny bera da narratzailea eta horrek gertuagotik bizi araziko digu historia. Pertsonaiak oso ondo taxututa daude, ez dira izango bada!, Lorenza Mazzetik bere haurtzaroan bizi izandako une latzak kontatzen ditu nobela autobiografiko honetan.